



OROZKOKO UDALA

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGAREN ORDENANTZA ARAUTZAILE FISKALA

(1997/12/30eko 249 zb. B.A.O.ean argitaratua eta 2006/01/17ko 11 zb. B.A.O.ean, 2007/01/24ko 7 zb. B.A.O.ean, 2007/12/21ko 248 zb. B.A.O.ean, 2011/12/22ko 242 zb. B.A.O.ean, 2012/07/24ko 142 zb. B.A.O.ean, 2012/12/31ko 249 B.A.O.ean eta 2015/12/14ko 239 B.A.O.ean, a 2017/02/22ko 37 zb. B.A.O.ean eta 2019/12/7ko 240 zb. B.A.O.ean aldatua)

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udaletxe honek, Kondaira Lurraldeko Hazienda Lokalak erregulatzen dituen Foru Arauak eta tributuaeren Foru Arau bereziak aurriztuz dabezan arabera, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga ezartzen dau, Ordenantza honi jarraiki, ezar daitezkezan biderkari eta heinkari taulak batzen dabezan Eranskinak honen barne dagozalarik.

2. artikulua

Ordenantza hau udal barruti osoan aplikatzen da.

II. EGINTZA EZARGARRIA

3. artikulua.

Orozkoko udal barrutian obra edo hirigintza-lizentzia behar dauen, edo aurretiko jakinarazpena edo erantzukizunpeko aitortpena aurkeztea behar dauen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea da zerga honen egitea, aitatutako lizentzia jaso zein ez, eta betibe lizentzia emotea Udal honi bajagoko.

4. artikulua

Zerga honen ondorioetarako hurrengo hauek hartuko dira:

1. Planta barria diren edozein motatako eraikuntza edo instalazioak egitea.
2. Edozein motatako eraikuntza edo instalazioak haunditzeko egiten diren obrak.
3. Edozein motatako eraikuntza edo instalazioen estruktura aldatzeko edo erreformatzeko egiten diren obrak.
4. Edozein motatako eraikuntza edo instalazioen kanpoko itxura aldatzeko egiten diren obrak.
5. Eraikuntzen barrualdea, euren erabilpena edozein izan arren, aldatzeko egiten diren obrak.
6. Behin behineko obrak.
7. Zerbitzu publikoak instalatzeko egiten diren obrak.
8. Lurraren mogimentuak, adibidez, luerauzketak, eskabazioak eta lurreraztatzeak, obra hauek, onartutako edo baimendutako Hirigintza edo Eraikuntza-Egitasmoa baten barruan zehazturik dagozan aktu arautuak ez badira.
9. Eraikuntzen botaketa, hondamen hurbilean dagozan deklarazioa daukienak izan ezik.



OROZKOKO UDALA

10. Lurrazpitik dagozan instalazioak, aparkamentuak, iharduera-industrial, merkatal edo profesionalak bezala erabiltzen direnak eta zerbitzu-publiko edo lurrazpia beste edozein erabilpenerako erabiltzen danerako.

11. Bide publikotik ikusgai diren kartelak kokatzeko.

12. Edozein obra, eraikuntza edo instalazio obra edo hirigintza lizentziara loturik dagozanak eta ekonomi arloan ahalmena demostratuz inbertsio ekonomiko bat inplikatzeko dauana.

5. artikulua

Udaletxe hau jabe dan higiezinetan egiten diren obra, eraikuntza edo instalazioak ez dagoz zerga honi loturik, baina beti Udaletxea obraren jabea bada.

III. SUJETU PASIBOAK

6. artikulua.

1. Lurralde Historikoko Zergetako Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak eta entidadeak izango dira zerga honen subjektu pasibo, eraikuntza, instalazio edo obrak egiten diren higiezinaren jabeak eta beti obraren jabeak direnean; beste kasuetan, obraren jabetza hartzen dauana zergaduntzat hartuko da.

Aurreko paragrafoaren ondorioetarako, eraikuntza, instalazio edo obraren jabea haren gastuak edo kostuak jasaten dituana da.

2. Egingo dan obraren jabetasuna higiezinaren jabearena baino beste pertsona edo entidade batena dala udal tributuo-Administrazioan sinistarazte-indarrez egiaztatzen ez bada, higiezinaren jabea zergaduna dala ulertuko da.

7. artikulua.

1. Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez badau, beraren ordezeko subjektu pasibo izango dira eraikuntza, instalazioa edo obra egiteko eskatzen edo aurretiko jakinerazpena edo erantzunkizunpeko aitortpena aurkezten dabenak edo bera egiten dabenak.

2. Beharbada, Udal Administrazioak zergadunaren ordezekoari bere nortasuna eta zergadun bezala agertzen dan pertsona edo entidadeari helbidea eskatu ahal izango deutso.

IV. ZERGA OINARRIA.

8. artikulua.

1. Zerga oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostua izango da; benetako kostua bera burutzeko kostua da.

Ez dira sartuko zerga oinarrian ez Balio Erantsiaren ganeko Zerga, ez araubide bereziko antzeko gainerako zergak, ez tasak, ez prezio publikoak, ez eraikuntza, instalazio edo obragaz zerikusia daukien ondarearen ganeko gainerako toki prestasinoak, ez profesionalen



OROZKOKO UDALA

ogibidesariak, ez kontratariaren industri mozkina, ez burutzapen materialaz kanpoko gainerako kontzeptu guztiak.

2. Likidazio probisional interesatuak aurkeztutako aurrekontuaren arabera egingo da, baina beti jagokon elkargo ofizial eskudunaren ikus-onespena badauka, beharrezkoa izanez gero.

3. Udal lizentzia, aurretiko jakinarazpen edo erantzunkizunpeko aitorten bako eraikuntza, instalazio eta obren kasuetan, edo errealitateaz bat ez datorren aurrekontua aurkeztuten dabezanei, Udal Administrazioak oinarri ezargarrria finkatuko deusie, aurreiritzirik ezeko balorapen erizpideak kontutan harturik.

V. TRIBUTU KUOTA

9. artikulua

Eranskinean agertzen dan zerga mota oinarri ezargarriri aplikatzeagatik ateratzen dana izango da Zerga honen kuota.

VI. SORTZAPENA

11. artikulua

Eraikuntza, instalazioa edo obra hasten danean zerga ordaindu beharko da, nahiz eta dagokion lizentzia oraindino ez euki.

VII. KONPETENTZIA

12. artikulua

Apirilaren 2ko Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituan 7/95 Legearen 21.1 II) artikuluan eta apirilaren 18ko 781/86 Errege Legislatiboaren 24 e) artikuluan ezarritakoaz bat etorritz, Udaletxeko Alkatetziak lizentziak emoteko konpetentzia eukiko dau.

VIII. KUDEAKETA

13. artikulua.

1. Aginduzko lizentzia edo aurretiko jakinarazpena zein erantzunkizunpeko aitortena emoterakoan, behin-behineko kitapen bat egingo da, interesatuak aurkeztutako aurrekontuaren arabera oinarri ezargarrria zehaztuz, baldin eta aurrekontu horrek elkargo ofizial eskudunaren ikus-onespena badauka; horrela ez bada, udal teknikariek zehaztuko dabe oinarria, proiektuaren kostu zenbatetsian oinarriturik.

14. artikulua.



OROZKOKO UDALA

Lizentzia emon ondoren, hasierako proiektua aldatzen bada, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da behin-behineko likidazioa barriz egiteko, aurrekontu aldatuak jatorrizko aurrekontua zenbateraino gainditzen dauan kontuan hartuta.

Obra bati lizentzia emon ondoren, aurrekontua jatorrizkoa baino goragokoa dala jakinarazten bada, lehenego aurrekontuaren eta bigarren aurrekontuaren arteko gaindikinarean kitapena egingo da.

15 artikulua

1. Egindako eraikuntza, instalazio edo obren gainean eta euren kostu errealari buruz. Udal Administrazioak behar dan azterketa administratiboaren bidez , beharbada, oinarri ezargarria aldatu ahalgo dau, behin betiko kitapena eginez eta beharbada, sujeto pasiboari dagokion kantitatea exijitu edo itzuliz.

2. Aurreko atalean ezarritakoaren ondorioz, obra amaitzen dan edo bere behin behineko harrera egiten dan hurrengo hilabetearen barruan udal Administrazioak emongo dauan orri baten zirkunstazia honen deklarazioa aurkeztu beharko da, berau, bidezkoa danean, dagokion kolegioak sinatutako obra-zuzendaritzaren egiaztapena erantsita daroala eta obren kostu guztia egiaztatuz.

16. artikulua

Zergaren kitapena egiterakoan, administrazioaren aldeko isiltasuna aplikatuz emon diren lizentziak ontzat emoten diren lizentzien bezala hartuko dira.

17. artikulua

Udaletxeak zerga hau autolikidazio modura eskatu ahalgo dau.

18. artikulua.

Lizentzia baten titularrak edo beharbada, aurretiko jakinarazpena edo erantzunkizunpeko aitortpena aurkeztu dauan obra, eraikuntza edo instalazioa ez egitea pentsatuko baleu, eta bere ezezkoa idatziz aurkeztuten badau, Udalak egindako behin-behineko kitapena itzuli edo guztiz deuseztatuko dau.

19. artikulua.

Lizentzia iraungi ondoren, Udalak egin dan likidazioa itzuli edo deuseztatu egingo dau, salbu eta titularrak edo aurretiko jakinarazpena edo erantzunkizunpeko aitortpena aurkezten dauenak barritzea eskatu eta Udalak baimena emoten dauenean, baina beti udal lizentzia horri jagokozan eraikuntza, instalazio edo obrak egin barik badagoz.

HOBARIAK:

- %33eko baino gehiagoko ezintasuna daukien pertsonentzat sarrera bidea edo bizitza hobetzeko higiezinetan egiten diren barruko edo kanpoko obretan eraikuntza, instalazio eta obren ganeko

Zergaren kuotan %50eko hobaria ezartzen da.



OROZKOKO UDALA

- Euskal Autonomi Erkidegoan Monumentu Historiko Artístiko deklaraturik dagozan higiezinetan egiten diren obretan eraikuntza, instalazino eta obren ganeko Zergaren kuotan %50eko hobaria ezartzen da.

- Irisgarritasuna bideratzeko obren araudiaren arabera igogailua kokatzen daberen jabe-komunitatei Eraikuntza, Instalazino eta Obren gaineko Zerga kuotan %50eko hobaria ezartzen da.

- Ondorengo ezaugarrietako eraikuntzak berregiteagatik edo kanponko mantenimentuagatik Eraikuntza, Instalazino eta Obren gaineko Zerga kuotan honako hobariak ezartzen dira:

- 35-50 urteen arteko aintzintasunekoentzat: %25eko hobaria ezartzen da.
- 51-75 urteen arteko aintzintasunekoentzat: %50eko hobaria ezartzen da.
- 76 urteen arteko aintzintasunekoentzat: %65eko hobaria ezartzen da.

- %50era arteko hobaria eguzki-energiaren bidez beroa edo elektrizitatea sortzeko sistemak instalatzen dituzten eraikuntza, instalazino eta obretarako. Hobari hau aplikatzeko ezinbestekoa izango da beroa sortzeko instalazioan administrazino eskudunak homologatutako kolektoreak jartzea.

Hobari hau bakarrik aplikatuko jake eguzki-energia aprobetxatzeko sistematarako erabiltzen diren ditu kopuruei, baldin eta inbertsio hori egitea ez bada nahitaezkoa indarrean dagoan legediaren arabera.

Letra honetan ezarritako hobaria ordenantza honen bigarren hobaria aplikatuz lortzen dan kuotari aplikatuko jake, halako hobaririk aplikatu behar izanez gero.

- %95era arteko hobari bat Eraikuntza, Instalazino eta Obren gaineko Zergaren kuotan, gizarte-inguruabar edo enplegua sustatu beharra dala eta interes berezikotzat edo udal erabilgarriak aitortzen diren nekazaritza eta abeltzaintza obretan. Hobari hau nekazaritza erregimen bereziko kotizatzaileentzat izango da bakarrik.

- %95eko hobaria hondamen-kalte egoera sozialagatik udal erabilera edo interesekotzat jotako eraikuntza, instalazino eta obrentzako, betiere eskumena daukan organoak hondamendizat jo izanez gero. Tokiko Gobernu Batzordeari jagoko udal erabilera edo interesekotzat jotzea, batzordekideen gehiengo soilak aldeko botoa emotea nahikoa izanik; Udalbatzak eskuordetzearen ondorioz, alde zuzenetik Informazio batzordearen aldeko txostena izanik.

- %95eko hobaria Bizigune etxebizitza hutsen programaren barruan alokairura bideratutako etxebizitzetan barritze-lanak egiteko. Etxebizitza aitatutako programaren barruan dagoenean eskatu beharko da hobaria. Orozkoko Udalak, datuak fidagarriak dirala eta laguntzak egoki erabilten dirala egiaztatze asmoz, beretzat gordeten dau egokitzen jotzen dabezan egiaztapen guztiak egiteko eskubidea.

Artikulu honetan aitatzen diran hobariak ezarri ahal izateko, interesdunek eskatu egin beharko dabez. Horretarako eskatutako hobaria zein dan adierazi eta beratu jasoteko baldintzak beteten dauazala ziurtatzen dauan frogagiria erantsi beharko dabe.

IX. AZKEN XEDAPENA.



OROZKOKO UDALA

Ordenantza honen oraingo testua eta bere eranskina Udalaren Osoko Bilkurak onartu eban 1997ko urriaren 10ean eta 2005eko abenduaren 22an, 2006ko abenduaren 22an, 2007ko urriaren 26an, 2008ko urriaren 22an, 2009ko abenduaren 21ean, 2010eko urriaren 29an, 2011ko abenduaren 13an, 2012ko azaroaren 13an, 2013ko abenduaren 10ean, 2014ko urriaren 31n eta 2016ko abenduaren 13an egindako bilkuren akordioaren bidez aldatu zan, aldaketa barria erantsi Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen da eta eta bere argitalpenaren ondoko egunetik aurrera indarrean sartuko da eta horrela jarraituko dau aldatzea edo indargabetzea erabagi arte.

I. E R A S K I N A

Tarifa.-Zerga-mota: Eraikuntza, instalazio edo obra kostatzen dan zenbatekoaren %5a (zergak ez dira kontuan hartzen).

II. ERANSKINA.

- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren zerga-onarria kalkulatzeko eraikuntza kostuen gitxinezko prezioak.

- Gitxienezko Kostua eraikuntza egiterapena materiala m² eta erabilera tipologiaren arabera:

- Taldeko Etxebizitzarako Erabilera Babes Ofizialeko Etxebizitza: 624,97 euro/m².
- Taldeko Etxebizitzarako Erabilera Librea: 781,31 euro/m².
- Familia Bakarreko Etxebizitzarako edo adosatua: 976,63 euro/m².
- Erabilera Industrial: 284,50 euro/m².
- Merkataritza Erabilera: 541,78 euro/m².
- Zehaztu bako erabilerako merkatal lonja: 273,29 euro/m².
- Garaje erabilera sot: 372,48 euro/m².